

Euskal AEko etxe bakoitzeko batez besteko gastuak % 4,9 egin du gora 2021ean

Euskal AEko etxeetan Internet bidez eginiko erosketak % 14,2 areagotu dira, eta gastua, guztira, 1.400 milioi eurotik gorakoa da

Etxeke batez besteko gastua, kopuru arruntetan, 33.045 eurokoa izan da 2021ean, hau da, aurreko urtean baino % 4,9 gehiago, Eustatek bildutako datuen arabera. *Jatetxe eta hotelen* batez besteko gastuaren igoera nabarmentzen da.

Eraitza horiek COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko testuinguru sozial eta ekonomikoaren barruan aztertu behar dira; izan ere, azken Euskal AEko etxeetako gastuaren bilakaeran du eragina.

Euskal AEko etxeetako gastu osoa eta gastuaren egitura, gastu-taldearen arabera (ECOICOP/EGF, 2 digitu) . 2019-2021

	Guztizko gastua (mila euro)				Gastuaren egitura (%)		
	2019	2020	2021	Gehikuntza (%) 2020/2021	2019	2020	2021
GUZTIRA	31.371.878	28.765.378	30.061.932	4,5	100,0	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.286.875	4.680.955	4.704.576	0,5	13,7	16,3	15,7
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	397.041	494.894	435.117	-12,1	1,3	1,7	1,5
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.412.996	1.078.050	1.252.988	16,2	4,5	3,8	4,2
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	10.677.287	11.036.593	11.067.084	0,3	34,0	38,4	36,8
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalentzako artikulak	1.350.616	1.227.749	1.291.345	5,2	4,3	4,3	4,3
06 T Osasuna	1.095.608	929.638	1.026.291	10,4	3,5	3,2	3,4
07 T Garraioa	3.364.929	2.622.318	2.793.299	6,5	10,7	9,1	9,3
08 T Komunikazioak	894.425	893.018	866.357	-3,0	2,9	3,1	2,9
09 T Aisia eta kultura	1.607.515	1.135.443	1.195.534	5,3	5,1	4,0	4,0
10 T Irakastuntza	561.362	508.602	585.218	15,1	1,8	1,8	2,0
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.423.261	2.045.889	2.698.171	31,9	10,9	7,1	9,0
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.299.964	2.112.228	2.145.952	1,6	7,3	7,3	7,1

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Gastu osoaren hazkunderik handiena Jatetxe eta hotelak taldean gertatu da, urteko % 31,9ko igoera izan baitu

Termino absolutuetan, **kontsumoko gastu osoa** 30.062 milioi eurora iritsi da 2021ean, hau da, 2020an baino % 4,5 gehiago, eta gastu-taldeetan bilakaera desberdinak izan ditu. Hala, gastu-bolumenean esanguratsuenak diren bi taldeetatik, *Etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta beste erregai batzuei* eta *Elikagaiei eta alkoholik gabeko edariei* egotz dakiekeen gastu osoa % 0,3 eta % 0,5 hazi dira, hurrenez hurren. Bi taldeek izan dute 2019koa –pandemiaren aurrekoa– baino gastu-bolumen handiagoa, *Irakaskuntzak* bezala (% 15,1 hazi da 2020aren aldean eta 2019an talde horretan eginiko gastuaren gainetik).

Aurreikusten zen bezala, *Jatetxe eta hotelen* gastuaren igoera nabarmentzen da; % 31,9 egin du gora, 2020aren aldean, COVIDaren ondoriozko murrizketak amaitu direlako, baina 2021ean ez dira lortu pandemiaren aurreko gastu-mailak.

Nabarmen hazi dira, era berean, *Soinekoak eta oinetakoak* taldearen gastuak (% 16,2), *Osasunarenak* (% 10,4) eta *Garraioenak* (% 6,5), baina talde horietako batean ere ez dira lortu 2019ko gastu-mailak.

Komunikabideak taldeko gastuek % 3,0 egin dute behera, 2020arekin alderatuta, bai eta *Edari alkoholduak eta tabakoa* taldearen gastuek ere (% 12,1 egin dute behera). Jaitsiera gertatu da 2020. urtean gastu-talde horren hazkunde handia izan zelako, baina azpimarratu behar da 2021ean gastu-bolumena 2019koa baino handiagoa izan dela.

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuek, gastu-taldearen arabera, antzeko bilakaerak dituzte. 2020ko datuekin alderatuta, honako gastu hauek soilik igo dira: *Jatetxeak eta hotelak* (% 32,4), *Soinekoak eta oinetakoak* (% 16,7), *Irakaskuntza* (% 15,5), *Osasuna* (% 10,8) eta *Garraioak* (% 6,9).

Aldiz, aurreko urtearekin alderatuta, etxe bakoitzeko batez besteko gastu hauek murriztu dira: *Edari alkoholduak eta tabakoa* (–% 11,7) eta *Komunikabideak* (–% 2,6).

Euskal AEko etxeetako etxeko batez besteko gastua eta gastuaren egitura, gastu-taldearen arabera (ECOICOP/EGF, 2 digitu) . 2019-2021

	Sutentatzaile nagusiaren prestakuntza-maila			Gastuaren egitura (%)	
	2020	2021	Gehikuntza (%) 2020/2021	2020	2021
GUZTIRA	31.498	33.045	4,9	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.126	5.171	0,9	16,3	15,7
02 T Edari alkoholduak eta tabakoa	542	478	-11,7	1,7	1,5
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.180	1.377	16,7	3,8	4,2
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiek	12.085	12.165	0,7	38,4	36,8
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalarentzako artikulak	1.344	1.420	5,6	4,3	4,3
06 T Osasuna	1.018	1.128	10,8	3,2	3,4
07 T Garraioa	2.871	3.071	6,9	9,1	9,3
08 T Komunikazioak	978	952	-2,6	3,1	2,9
09 T Aisia eta kultura	1.243	1.314	5,7	4,0	4,0
10 T Irakaskuntza	557	643	15,5	1,8	2,0
11 T Jatetxeak eta hotelak	2.240	2.966	32,4	7,1	9,0
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.313	2.359	2,0	7,3	7,1

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Euskal AEko etxeetako gastu handiena Etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta bestelako erregaiei dagokie; izan ere, gastu horren pisua guztizkoaren % 36,8 da

Gastu-egiturari erreparatuta, Euskal AEko etxeek eutsi egin diote 2021ean *Etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta bestelako erregaiei* lotutako gastuari, pisu handienekoa bezala (guztizko gastuaren % 36,8); gastu hori ehuneko 1,6 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Bigarren garrantzitsuenak, berriz, *Elikagaietan eta alkoholik gabeko edarrietan* egindako gastua (% 15,7) ehuneko 0,6 puntu jaitsi da aurreko aldiarekin alderatuta. Bi taldeetara bideratutako gastuak etxeen aurrekontu osoaren erdia baino gehiago izan dira 2021ean, eta % 52,5era iritsi da; 2020an, % 54,7ra eta 2019an % 47,7ra.

Nabarmenezkoa da *Jatetxe eta hoteletan* egindako gastuak etxeen guztizko aurrekontuan izan duen igoera, aurrekontu osoaren % 9,0 izan baita, eta, 2020an, % 7,1, baina 2019ko % 10,9ren azpitik. Aurreko urtearekin alderatuta, pisu-galera handiena izan duen hurrengo taldea *Soinekoak*

eta oinetakoak taldeari lotutako gastuena izan da, 2020ko aurrekontu osoaren % 3,8tik 2021eko % 4,2ra igo baita.

Gastua lurralde historiko bakoitzaren arabera

Lurralde historikoen arabera, Arabako familiek Euskal AEko kontsumo-gastu osoaren % 15,0 egin dute 2021ean, Bizkaikoek gastuaren % 52,3 eta Gipuzkoakoek % 32,7.

Euskal AEko etxeko batez besteko gastua (euroak), gastu-taldearen arabera, lurralde historikoari jarraiki (ECOICOP/EGF, 2 digitu) . 2020-2021

	Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2020	2021	Gehikuntza (%) 2020/2021	2020	2021	Gehikuntza (%) 2020/2021	2020	2021	Gehikuntza (%) 2020/2021
GUZTIRA	28.580	31.924	11,7	31.113	32.696	5,1	33.508	34.176	2,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.989	5.314	6,5	4.923	4.837	-1,7	5.521	5.659	2,5
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	432	417	-3,5	530	512	-3,4	613	452	-26,3
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.302	1.582	21,5	1.042	1.279	22,8	1.348	1.441	6,9
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiek	10.648	11.087	4,1	12.335	12.437	0,8	12.359	12.240	-1,0
05 T Altzariak, etxeko artikulak eta etxearen mantentze normalarentzako artikulak	1.076	1.377	28,0	1.390	1.445	4,0	1.398	1.398	0,0
06 T Osasuna	1.072	1.083	1,1	956	961	0,5	1.094	1.429	30,6
07 T Garraioa	2.472	3.683	49,0	2.535	2.688	6,0	3.609	3.410	-5,5
08 T Komunikazioak	916	887	-3,1	960	936	-2,5	1.036	1.012	-2,4
09 T Aisia eta kultura	1.267	1.341	5,8	1.241	1.318	6,2	1.236	1.294	4,7
10 T Irakastuntza	369	525	42,4	549	630	14,8	659	723	9,7
11 T Jatebeteak eta hotelak	2.163	2.409	11,4	2.228	3.144	41,1	2.296	2.940	28,1
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	1.873	2.218	18,4	2.425	2.509	3,5	2.339	2.177	-6,9

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Batez besteko gasturik handiena Arabako etxeetan erregistratu da

Arabako etxeek, nahiz eta batez besteko gasturik txikiena izan duten hiru lurraldeetako etxe bakoitzeko (31.924 euro), 2021ean gehien areagotu dutenak izan dira; % 11,7ko hazkundea izan dute, alegia, urtean, batez beste, 3.344 euro etxeko. Igoera horren arrazoi nagusia izan da, funtsean, gastuek gora egin dutela honako hauetan: *Garraioak* (% 49,0), *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiek* (% 4,1) eta *Beste ondasun eta zerbitzu batzuk* (% 18,4), besteak beste. Jaitsiera handiena honako gastu hauek izan dute, 2020arekin alderatuta: *Edari alkoholduak eta tabakoa* (-% 3,5) eta *Komunikabideak* (-% 3,1).

Gipuzkoako etxeek izan dute batez besteko gasturik handiena etxe bakoitzeko (etxe bakoitzeko, batez beste, 34.176 euro urtean), Euskal AEko batezbestekoa (33.045) baino % 3,4 handiagoa eta 2020an baino % 2,0 handiagoa. Igoera horren arrazoi nagusia izan da *Jatetxeetan eta hoteletan* eta *Osasunean* egindako gastua igo egin dela (% 28,1 eta % 30,6, hurrenez hurren). Aitzitik, behera egin dute, nabarmen, etxeko batez besteko gastuek *Edari alkoholduen eta tabakoaren* kasuan (-% 26,3), *Beste ondasun eta zerbitzu batzuen* kasuan (-% 6,9) eta *Garraioaren* kasuan (-% 5,5), bai eta *Etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen* kasuan (-% 1,0) ere.

Bizkaian, etxe bakoitzeko batez besteko gastua 32.696 eurokoa izan da, 2020koa baino % 5,1 handiagoa; alegia, etxe bakoitzeko batez besteko gastua urtean 1.583 euroan areagotu da. Igoera handiena *Jatetxeak eta hotelak* taldean izan da, % 41,1ekoa 2020arekin alderatuta; alegia, etxe bakoitzeko batez besteko gastua talde horretan urtean 916 euro handiagoa izan da. Berdin gertatu da *Garraioak* taldean ere, % 6,0 areagotu baita. Aitzitik, 2020aren aldean honako talde hauek

behera egin dute: *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (–% 1,7), *Edari alkoholdunak eta tabakoa* (–% 3,4) eta *Komunikabideak* (–% 2,5).

Internet bidez egindako gastua

Etxeetako kontsumo-gastuaren zati gero eta handiagoa **Internet** bidez egiten da; 2021ean, Euskal AEko etxeetako gastu osoaren % 4,8 izan da, eta 1.438 milioi eurora iritsi da.

Internet bidez erositako ondasun eta zerbitzuen gastu-egituraren arabera, *Soinekoak eta oinetakoak* gastu-taldea % 28,2 izan da, eta, talde horren barruan, *Soinekoen* gastua nabarmendu behar da. Horren atzetik *Jatetxeak eta hotelak* eta *Aisia eta kultura* daude (% 20,4 eta % 16,6, hurrenez hurren).

Jatetxeak eta hotelak taldearen barruan, nabarmentzekoa da Internet bidez erositako *Ostatu-zerbitzuen* pisua berreskuratu dela; izan ere, zerbitzu horien pisua % 68,1 zen 2020an, eta % 86,3, berriz, 2021ean. Ondorioz, *Jatetxe* arloari lotutako zerbitzuek pisua galdu dute, talde horretan 2020an Internet bidezko gastuen % 31,9 izatetik % 13,7 izatera pasatu baitira 2021ean.

Aisia eta Kultura taldeari dagokionez, 2020ko egiturarekin alderatuta, 2021ean pisua galdu du, eta gastuaren % 21,7tik % 16,6ra igaro da. Talde horren barruan, Internet bidezko gastua *Ikus-entzunezkoen, argazkien eta informazioa prozesatzeko ekipamenduetan* eta *Aisiarako, kirolerako eta kulturarako ondasunetako* gastuak dira pisu gehien galdu dutenak.

Internet bidez erosketak egiten dituzten Euskal AEko etxeen batez besteko gastuen bilakaera eta banaketa ehunekotan. 2016-2021

	Internet bidezko gastua duten etxeen ehunekoa (%)	Internet bidezko batez besteko gastua (euroak)	Internet bidezko gastuaren ehunekoa (%)
2021	36,5	4.336	10,0
2020	38,8	3.798	10,1
2019	37,0	3.608	8,5
2018	35,3	4.191	10,1
2017	29,8	4.178	10,0
2016	23,1	4.169	9,5

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Internet bidez egindako gastuaren bilakaerari erreparatuta, ikusten da Internet bidez erosketak egin dituzten etxeen ehunekoak behera egin duela pixka bat 2020tik, eta etxe guztien % 36,5 izan dira. Hala ere, Internet bidez erosketak egin dituzten Euskal AEko etxeen batez besteko gastuak nabarmen egin du gora, 4.336 eurora iritsi arte, aurreko aldian baino % 14,2 gehiago.

Kontsumoko gastua, etxeen ezaugarrien arabera

Euskal AEko etxeetako gastua aztertuz gero, etxea eta bertako kideak sailkatzeko aldagaien arabera, datuen ikuspegi sozioekonomikoa lortzen dugu.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko tamainaren arabera. 2021

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	30.061.932	33.045	13.982
kide bat	5.714.499	22.043	22.043
2 kide	9.599.298	33.128	16.564
3 kide	6.531.201	36.981	12.327
4 eta gehiago	8.216.933	44.633	10.514

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeko diru-sarreraren iturri nagusiari dagokionez, *beren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak* diru-sarreraren iturri nagusi dituzten etxeak izan dira 2021ean batez besteko gastu handiena izan dutenak —36.335 euro urtean—; Euskal AEko etxe bakoitzeko batez besteko gastua baino % 9,7 handiagoa. Baina batez besteko gastua % 6,6 murriztu da, 2020arekin alderatuta; alegia, batez beste, urtean, etxe bakoitzeko, 2.560 euroko murrizketa izan da. Ondoren, diru-sarreraren iturri nagusia *besteren konturako lana* izan duten etxeak kokatu dira, 35.765 euro batez beste etxe bakoitzeko (2020an baino % 5,8 gehiago). Azkenik, etxe bakoitzeko 29.336 euroko batez besteko gastuarekin eta Euskal AEko batezbestekoa baino % 11,4 txikiagoarekin ditugu diru-sarrera nagusi gisa *pentsioak, subsidioak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak* izan dituzten etxeak.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko diru-sarreraren iturri nagusiaren arabera . 2021

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	29.561.269	33.121	14.025
Norberaren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak	2.441.352	36.335	13.717
Besteren konturako lana	16.176.587	35.765	13.321
Pentsioak, sorospenak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak	10.943.331	29.336	15.297

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Sostengatzaile nagusiaren jardueraren ondoriozko egoeraren arabera, etxeetako gastuari dagokionez, 2021ean sostengatzaile nagusia aktibo dagoen etxeetan, etxeetako batez besteko gastua 34.756 eurokoa izan da, Euskal AEko batezbestekoa baino % 5,2 handiagoa. Aitzitik, sostengatzaile nagusia aktibo ez dagoen etxeen batez besteko gastua 30.165 eurokoa izan da, batezbestekoa baino % 8,7 azpitik. Aurreko urteko datuekin erkatuta ikusten da bi kasuetan etxeko batez besteko gastuak gora egin duela; % 3,9 handiagoa da sostengatzaile nagusia *aktibo* duten kasuetan, eta % 6,9 handiagoa, sostengatzaile nagusia *aktibo* ez duten kasuetan.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, sostengatzaile nagusiaren jardueraren egoeraren arabera. 2021

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	30.061.932	33.045	13.982
Aktiboak	19.836.904	34.756	13.033
Ez-aktiboak	10.225.028	30.165	16.281

Data 2022ko Ekainaren 28a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Oharra: Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egiten da Euskal AEn.

Informazio gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62